

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

**Inauteriei
erreparoa /08**

LEHIAKETA

**Museorako izen eta
logotipo bila /09**

LEINTZ GATZAGA

**Inauteriak
argazkitan /10**

EGURALDIA BERBAGAI

**Andoni Aizpuru eta Pello Zabala
eguztenean, udaletxe zaharrean**



ARATUSTEAK: MARTITZENEAN UMEEN TXANDA/4 • KIROLAK: UDABERRI PILOTA TXAPELKETA/6

ATREBENTZIAEZPADA/ Santa Ageda mutillek zintzo ibilli diela uste dozu? Ezer entzun dozu?



VICTORIA GOMEZ
Langillie

Nik uste dot baietz. Etxafleruek entzun dittut, noski; berandu faten die etxera mutillok eta asko botaten dittue, baiñe besterik ez. Ez dutzet inñori ezer entzun, eta normal ibilli diela uste dot.



AITOR SAN MIGEL
Langillie

Ez dakit. Etxafleruek entzun dittut, baiñe mutillek ez dittut ikusi; hortan, ezin dot esan. Kalien ez dutzet entzun inñori gaizki ibilli dienik, eta 18 urte behin eukitten diela garbi dau.



LEIRE ARANA
Langillie

Ez. Almenen Eskoriatzako batei etxafleruek errebertau egin eutzen, ikeragarrixe da; laster disgustoren bat eukiko dou. Ohitturie galitzen doie, eta beste modu baten egitteko ordue da.



JUAN AXPE
Jubilaue

Ez, ez die bape ondo ibilli. Plaza azpiko itturrixo apurtute euen astelehenien, zuhaitz asko apurtute... Jaixek ospaketako die, eta ez inguruko dana apurketako. Azkenien jaixe kendu egin biherko da.



JONE ARENAZA
Langillie

Egixe esateko, ez dittut ikusi; hortan, ezin dot askorik esan. Etxafleruek entzun dittut etxetik, baiñe beste urte batzuetan baiño gutxiu, uste dot. Beste inñori be ez dutzet ezer entzun.



ENRIQUE DE TENA
Langillie

Ez dakit, aurten ez dittut ikusi be egin. Aurreko urtietan moduen ibilliko zielela uste dot. Hori bai, lankideren bati entzun dutzet kejie etxafleruek oso berandu botaten zittuztela.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ETXAFUEGOA IGOGAILUAN Etxafuegoa sartu zuten igogailu baten joan den zapatu gauean. Ondorioz etxafuegoa leher-tutako lekuan apurtu egin zen igogailua, botoiak bere lekutik aterata eta kableak zintzilik utzita. Eta, noski, hondatuta geratu zen. Bizilagunak erabat nahigabetuta zeuden. Jaietan gustura ibiltzea gauza bat da, eta ondo pasatzeko albokoa izorratzea beste bat. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Aratusteei gainbegiratua

Eguaztanean sartu ginen Garizuman, baina Aratusteei utzitako jai giroa gogoratuko dugu.

ASTEAN BEHIN /05

Eguraldia berbagai

Andoni Aizpuruk eta Pello Zabalak eguraldiaren gainean egingo dute eguaztanean, otsailak 16.

KIROLAK /06

Udaberri Pilota Txapelketa

Bihar, zapatua, lehen mailako helduek partiduak jokatuko dituzte Iturrigorri frontoian, 18:00etan.

ASTEKODATUA

1.230

EURO BANATU ZITUEN UDALAK MOZORRO LEHIAKETAN

Aratuste-domekako mozorro lehiaketan 1.230 euro banatu zituen sarietan. 16 urtetik gorakoendako 690 euro egon ziren, 16 urtetik beherakoendako 440 euro eta 100 euroko accessita.

BESTEESANA

“ Faraoi berezi bat topatu gura genuen, bestela gatzgabe geldituko zela ikuskizuna iruditzen zitzaigun, eta segituan bururatu zitzaigun osabari galdetzea. Hasieratik eman zigun baietza. Orduan bai pentsatu genuen jendea harrituta geratu behar zela, osaba oso ezaguna da-eta herrian. Gainera, sekula ez da mozorrotu eta jendeak ez zuen batere espero. Bigarren planoan utzi gintuen osabak. Denbora guztian herritarrei agurka joan zen, eta betaurreko barik ikusteko ahalegin handia egin zuen, nahiz eta asko ez ikusi. Jendeak oso pozik ikusten zuen, batzuek inbidia apur batekin begiratzen ziotela uste dut. Eta esan diogu: “osaba hemendik aurrera zurekin kontaktzen dugu”.

MARI KARMEN ETXEANDIA
‘Arrasate Irratia’/05-02-07

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Nire Aitaren (Amaren) etxea

Gure bizitza kizkurtzen dituen gai, arazo... asko azkenaldi honetan. Eta poema bateko hitzak hartu ditut nire artikuluari hasiera emateko. Zerbaiti heldu behar eta ez da erraza. Dena den, asko pentsatu ondoren, oso hurbileko zaidan gai bat hartu dut: nire Aitaren/Amaren etxearena, Elizarena, hain zuen. Alde bateko iritziak, beste aldekoak... ilundu egin dute, zoritxarrez, etxe horren edertasuna. Badakit, bai, Elizaren jokaerak, iritziak, irizpideak... ez direla beti oso zuzenak izaten. Onartzen dut. Eta onartzen dut ni, neu, ere Eliza naizelako askotan horrela jokatzeko dudala, nahiz eta beste modu batera jokatu nahi izan. Bai, aitortzen dut nire bekatua.

Baina, aldi berean, ezin esan gabe utzi, azkeneko aste hauetan, etxe honi gezi gehiegi botatzen dizkiotela hainbat lekutatik (komunikabide, partidu, erakunde...) Zergatik?

Behar bada, oso komertziala delako eta joko ekonomiko handia ematen duelako Eliza irrigarri uzteak; demokrazia, norberak nahi duena egitea bezala ulertzen delako... Bestela, nola ulertu, adibidez, PRISA taldearen jokaera bere hainbat produkzioan?

Horietako bat, orain dela gutxi, telebistan eskaini duten *Cómo cocinar un crucifijo*. Asko entzuten dut Eliza atzeratua dagoela, gizakia ez duela kontutan hartzen, boterea gustatzen zaiola... Behar bada; zerbait egon daiteke. Baina

besteei harria botatzen ausartzen direnak eskuak garbiak ote dauzkate? Errespetu eta edukazio faltak ez al daukate mugarik? Ez gaitzezen hipokresi egoeran bizi. Elizan pentsatzen, hausnartzen, zuzen jokatzen eta laguntzen ari den pertsona asko dago/gaude, eta ez gaituzte engainatuko. A! Eta nire Aitaren etxean denentzako dago lekua. Besteek hori esan al dezakete?

“Alde bateko iritziak, beste aldekoak... ilundu egin dute, zoritxarrez, etxe horren (Elizaren) edertasuna”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Itsaso Berezibar

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.700 ale

Goiena
Kommunikazio Zerbitzuak

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Aratuste
ostie

Pasau die Aratustietako jai egunek, eta oin oititze eta penitentzia egin biher. Hala esaten dau behintzet elixiek. Norberak ikusi biher... Pasau die Aratustiek, baiñe zeresan haundixe emun daue. Batetik Txino dantzie dala eta ez dala ibilli die Goiena.neteko eztabaidie jarraitetan dauienak. Batzuk alde, beste batzuk kontra... Ni, neu ohitturak gordieten aldekie naz eta urte askuen ikusi gureko nauke dantzie egitten Aratustietan. Bestetik sarixek diela eta ez diela. Kuadrilla askok urten euien, eta asko eozen sarixe jasoteko modukuek. Nik pena hartu nauen Marijaia ez eutzielako ezer emun. Batzuk dotore eozen, beste batzuk ikusgarri, baiñe baten bat ibilli bazan herrixe girotu guran Marijaia izen zan. Eta bukaketako gabeko apurketak. Ondo paseta-ko ez dot pentsetan ezer apurtu biherrik dauenik, eta etxafleruek lurrera bota biherrien iguel-iguel bota leikez zerure.

Jaixetan egoterik euki ez dauen bat gogoratu gure dot oin: Kepa Urrea. Domekan bere urtebetetzie izengo da, eta gaur gabien taldetxo batek Curtiseruntz urtengo dau. Ia bidaia ona izeten dauien eta eurek eruendako berotasun eta animuek jasoten dittuen Kepak. Mila zorion, Kepa!

M. J. Aretxaga

ARATUSTEAK/ Domekan mozorroek sortutako jai giro bikainak martitzenekoa ekarri zuen herriko kaleetara
'Sorginak' eta Lantzeko pertsonaiak izan ziren nagusi Aratusteetako martitzenean



Joakinkamom faraoiak aho zabalik utzi zituen herritarrak, eta hark eraman zuen saria.



Aratuste-domeka eguerdian Txino Dantza egitea aspaldiko ohitura da gurean.



Sorgin txikiak Txino Dantza egitera etorri ziren Herriko Plazara.



Zanpantzarrek dantzan egin behar izan zuten goizeko freskurari aurre egiteko.



Txiki zein handi guztiek egin zuten bat Herriko plazan Aratusteak ospatzeko.



Lantzeko Inauterietako pertsonaiak ezagutarazi zituzten ume eta gaztetxoek.

Okindegia - Gozologia

Aretxabaleta

Loramendi 6 • 943 77 17 19
Basabe 2 • 943 77 00 81
Aretxabaleta
Bertako okina

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Jou Diaz

Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

JAUSORO OSTATUA

Durana kalea 18 1.ESK
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

EGURALDIA/ Areantza auzoko Bixente Pagoagak egingo ditu moderatzaile lanak eguraldiaren gaineko solasaldian

Andoni Aizpuru eta Pello Zabala etorriko dira eguaztenean eguraldiaren gainean berba egitera

M.A

Uda beroa izango dugu? Zer esango ote dute hurrengo tenporek? Elurrak egingo digu bisitarik berriro? Horiei eta gehiagori erantzunon diete Andoni Aizpuruk eta Pello Zabalak datorren eguaztenean. Solasaldia, gainera, Areantzako Bixente Pagoagak gidatuko du.

Eguraldiak gero eta jakin-min handiagoa sorrarazten du. Dagoeneko ez da nahikoa hurrengo eguneko eguraldiaren berri izatea; aste bukaerakoa jakin gura dugu, Aste Santukoa eta, zergatik ez, baita udakoa ere. Tenporak, elurteak, beroaldiak... Zenbat misterio dituen eguraldiak...

HERRITARREN GALDERAK

Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta Andoni Aizpuru eta Pello Zabala izango ditugu eguaztenean, otsailak 16, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Eguraldiaren gaineko kontu ugari ekarriko dituzte, eta solasaldiaren gidaria Areantza auzoko Mitarte Garai baserrian bizi den Bixente Pagoaga izango da. Bixentek berak ere eman izan du eguraldiaren berri GOITBn. Andonik eta Pellok, baina, ez dute hitzaldirik egingo; herritarren galderari erantzun gura dizkiete. Hortaz, interesatuok galderak Loramendi



Herritarren galderak erantzunon dituzte Pello Zabalak eta Andoni Aizpuruk.

EEra zuzendu behar dituzue bertara joanda edo posta elektronikoen bitartez: loramendi@topagunea.com. Aretxa-

baletarren jakin gura asetzerak eta dakiten guztiaren berri ematera etorriko dira Euskal Herriko eguraldi iragarle ezagunenak.

FILM LABURRAK ETA IKASTAROAK

Loramendi EEK urteko lehenengo hiruhilabeterako antolatu duen egitarauaren barruan dago eguraldiaren gaineko solasaldia. Horrez gain, ekitaldi ugari dituzte bai otsail bai martxorako. Datorren zapatuan, otsailak 19, gomaparra zela erabili erakutsiko dute udaletxe zaharrean. Hiru orduko ikastaroa izango da, eta panpinak egiteko hainbat triki-mailu erakutsiko dituzte. Otsailaren 24an, bestalde, euskal film laburren emanaldia egingo dute. Udaletxe zaharrean izango da hura ere, 21:30ean.

Martxoan, osterak, hitzaldiak izango dira nagusi: hilaren 3an, euskal mitologian emakumeek izan duten garrantziaren gainean egingo du berba Anuntxi Aranak; 10ean, seme-alaba eta gurasoen arteko harremanaren inguruan jardungo dute; eta 17an, Demoak eta Zuzen taldeen hitzaldia izango da. Denak izango dira udaletxe zaharrean, 19:00etan.

Halaber, hitzaldi horiez gain eskulan eta bainika ikastaroak egiten dituzte urte osoan. Urtrilean, bestalde, bertan behera geratu zen elurraren ondorioz eskualdeko kondairen kontaketa. Hala ere, ez dute ahaztuta Loramendi EEko kideek, eta, Imanol Biain kontatzailearekin berba egin otean, eguna zehaztuko dute.

LABUR

Hainbat apurketa egin zituzten Aratuste-domekan

Aratuste-domekako jai giroa gaueko apurketek ilundu zuten. Etxafuegoak izan ziren txikizio askoren errudun; izan ere, zuhaitzetan jarri eta erabat apurtu zituzten. Santa Kurtz kaleko etxebizitzaren ostean dauden zuhaitzak landatu berri zeuden, lehen ere apurtu egin zituztelako. Horiakin batera Irala-barri plazako ezkiak ere apurtu zituzte oraingoan. Lezamako ate bati, gainera, kristala hautsi zioten, eta aurreko gauean igogailu bat hondatu zuten etxafuegoarekin.

Basotxoko batzordea berritzeko deia egin du zuzendaritzak

Basotxo erretiratuen elkar-teak batzar orokorra egin gura du Aste Santu aurretik. Egun horretan zuzendaritza batzordea berrituko dute, hau da, zortzi lagunetik lauk utzi egingo dute kargua eta beste lau sartuko dira. Zuzendaritza batzordean parte hartu gura duten guztiak otsailaren 28a baino lehen eman behar dute izena Basotxon bertan. Oraingo zuzendaritzako kideek gogorarazi gura dute kide berriak behar dituztela lanean jarraitzeko.

KONPONKETA LANAK

Abenduan jausi zen Goroetako kanposantuko horma konpontzeko ia 33 mila euro behar dira

Abenduan jausi zen Goroeta auzoko kanposantuen hiru hormetako bat, iparraldera ematen duena, hain zuzen. Joan den astean, osterak, konponketa lanak hasi zituzten, eta 32.964 euro beharko ditu Udalak. Hirigintza Saileko ordezkarien esanetan, hormak oso zaharrak dira, XVIII. mendekoak bai behintzat, eta inoiz konpondu barik zeuden. Lur azpitik doazen urek, gainera, jan egiten dute hormetako lurra, eta, azkenean, jausi egin zen abenduan egindako euri jasan ostean. Horregatik, jausitakoa konpontzearekin batera, beste biak berritu egingo ditu Udalak, hau da, indartu.

Kanposantu barruko hilobiak, bestalde, ez dituzte ukituko, eta haiek babestu guran lehenbailehen hasi dituzte konponketa lanak. Gogoratu kanposantu horretan bertan ezezagun batzuk ibili zirela iaz, ekainean, eta hainbat apurketa egin zituztela: hilobiak mugitu, hilarriak apurtu eta elizpean zuloa.

POLITIKA

Europari ezetz esateko eskatu zuten

Otsailaren 20an Europako Konstituzioaren gaineko galdeketa egingo dute. Hori horrela, Ezezkoren Aldeko Ekimenak ezetz bozkatzeko eskatu zuten astelehenean egindako prentsaurrekoan. Hainbat herritar batu ziren, eta Europako Itun Konstituzionalari ezezkoa emateko arrazoi asko daudela esan zuten. Garrantzitsuena da: ez dituela bermatzen herri eta hiritarron eskubide nazionalak, sozialak eta demokratikoak.



Astelehenean egin zuten prentsaurrekoa Ezezkoren Aldeko Ekimenak.




AZKARATE
aroztegia

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak



LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

J.J. IRURE
HURBINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

PILOTA

Lehen mailako helduak ezin irabazita dabilta Udaberri Pilota Txapelketan

Bihar arrasatearrak eta donostiarrak izango dituzte aurrez aurre Iturrigorri frontoian


M.A.

Udaberri Pilota Txapelketa jokatzen dabilta herriko hainbat pilotari. Orain arte ez dute emaitza onik lortu, batez ere Errasti anaiek, baina oraindik bost partidu falta zaizkie liga bukatzeko. Lehen mailako helduek Iturrigorri frontoian jokatuko dute bihar.

Herriko sei pilotari dabilta Udaberri Pilota Txapelketa jokatzen. Errasti anaiek eta Lasagabaster/Altzola bikoteek lehen mailako helduen taldean jokatzen dute, eta Oion/Uriarte bikoteak bigarren mailako helduekin.

ITURRIGORRI, 18:00ETAN

Ezin irabazita dabilta Errasti anaiek. Juan Mari Errasti aitaren esanetan ez dabilta gaizki jokatzen, baina bukaeran ezin irabazita geratzen dira: "Beasaingarren aurka jokatu zuten azken partiduan, 15-19 galtzen joan ostean 20-19 aurreratu ziren, baina azkenean galdu egin zuten, 20-22". Edozelan ere, jokatutako hiru partiduak galdu dituzte. Bihar Donostiako Loiolatarrak elkarteko pilo-



Pilotazaleen berotasuna beharko dute bihar Iturrigorri frontoian irabazteko.

ARTXIBOA

tariak izango dituzte aurrez aurre. Lasagabaster eta Altzola bikoteak, bestalde, partidu bakarra jokatuko du, Zumarragako bikotearen aurka, eta galdu egin zuen. Bihar arrasatearrak izango dituzte aurrez aurre. Lehen mailako hel-

duen partidu biak Iturrigorri frontoian izango dira, 18:00etan.

Oion eta Uriarte bikoteak, bestalde, partidu bakarra irabazi du, Eibarko bikotearen aurka. Aste bukaeran Azpeitira joango dira norgehiagoka jokatuzera.

XAKEA

Partida bat galdu eta bestea irabazi egin zuen Arlutz Xake Taldeak joan zen aste bukaeran

Bi partida jokatu zituzten Arlutz Xake Taldeko kideek joan zen aste bukaeran. Zapatuan, Gasteizko Hotel Ruta de Europa izan zuten aurrez aurre eta galdu egin zuten, 3,5-0,5. Domekan, ostera, Urnie-tara joan ziren jokatuzera eta irabazi egin zuten, 1,5-2,5. Aste bukaera honetan ez dute partidarik izango, eta hurrengoan, otsailak 19, Arrasateko San Andres taldea izango dute aurrez aurre.

FUTBOLA

Eguaztenean, otsailak 16, jokatuko du preferenteak bertan behera utzitako partidua

Urtarrilaren 30ean preferenteak Real Union taldearen aurka jokatu behar zuen partidua bertan behera utzi zuten izotzaren erruz. Partidu hori eguaztenean, otsailak 16, jokatuko dute 19:00etan Ibarra futbol zelaian. Preferente taldearen partidua ez zen izan bertan behera geratu zen bakarra, baina gainerako guztiak aurreko aste bukaeran jokatu zituzten.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Tolosa

Preferentea.

Domeka. 16:30. Ibarra.

UDA-Real Union

Preferentea.

Eguaztena. 19:00. Ibarra.

PILOTA

Arexab.-Arrasate

Lehen mailako nagusiak.

Arexab.-Loiolatarrak

Lehen mailako nagusiak.

Zapatua. 18:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

Anaitasuna 0 UDA 0

Preferentea.

UDA 4 Aldapetarrak 0

Ohorézko gazteak.

Urki 0 UDA/Arizmendi 2

Lehen mailako gazteak.

UDA/Arizmendi 3 Billabona 0

Lehen mailako kadeteak.

UDA/Arizmendi 3 Urki 1

Bigarren mailako kadeteak.

UDA/Arizmendi 4 Beasain 0

Infantil txikiak.

Almen/Arizmendi 0

UDA/Arizmendi 5

Emakumeen F-8 liga.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Arexab. 20-Beasain 22

Lehen mailako nagusiak.

Arexab. 15-Bergara 22

Bigarren mailako seniorrak.

KURTZEBARRI ESKOLA

*maila
handiko
heziketa*

Matrikula zabalik: otsailaren 14tik-25ra

ELKAR EZAGUTZEKO AUKERA:

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza: otsailak 14, 6etan euskeraz/ 7etan gaztelaniaz

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: otsailak 16, 6etan

ERRETRATUZHARRA

Antzezlana, mojetako neskek egina

Herrian hainbat aktore ditugu, eta azkenaldian aktore lanetan ibilitakoak askoz gehiago. Erretratu zaharreko neskatila hauek ez dira aktoreak, baina euren lantxoak egindakoak bai. 1960koa edo 1962koa da erretratua, eta agustindar mojen ikastetxean zebiltzan neskek antzerkia bukatutakoan ateratakoa da. Herritarren aurrean egin zuten, gainera, antzezlana parrokiako saloian.

Sokorro Unanue da guztien artean gazteena, eta 13 bat urte izango zituela uste du: "Ez dakit zer dela eta egin genuen antzerkia, eskolako ekintzaren bat izango zen. Abesbatza ere bageneukan, eta Bilbotik etortzen zen irakasle batek erakusten zigun; oso abeslari ona zen. Nik uste dut irakasle hark berak egingo zituela zuzendarî lanak antzezlaren kasuan ere". Ikastetxeetan hainbat ekintza egiten dituzte umeek orain, eta orduan ere ez ziren gutxiago. Ikustera, berriz, guraso eta senideez gain herritarrek zeuden gonbidatuta. Sokorrok ez daki zein



antzezlana egin zuten: "Baina badakit gutun bat idatzi behar ziola norbaitek izeba Bebari, eta beste batek esaten ziola zer idatzi. Gaztelaraz zen, noski, eta, tia Beba esaten zuen bakoitzean, idazten zebilenak mahaitxo gainean zegoen botilatik zurrut egiten zuen. Koma jartzeko esaten zion bakoitzean,

berriz, platereko gailetak jaten zituen", dio Sokorrok. Antzezlana behar bezala egiteko dotore jantzi ziren, gainera, neskek: batzuk zerbitzari eta beste batzuk etxeakoandre.

Goiko argazkian agertzen diren neskek, ezkerretik eskumara: Rosa Bernal, Sokorro Unanue, Rosa Mari

Elkoro, Rosa Mari Lasagabaster, Ana Mari Martinez, Felisa Pagaldai, Aurora Iriarte, Maribel Antxia eta Maribel Iturbe.

Argazkia: Ramon Mari Elkoro
Informazioa: Sokorro Unanue

MAHAI INGURUA DEBARRI

Europar ituna eztabaidagai

Martitzenean, otsailaren 15ean,
21:00etan

Aurkezlea:
Alberto Gorritiberea



Ikustekoa!

GOIENAN HERRIZ HERRI / Babeslea:



Ze barri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko otsailaren 11 / 198. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxe: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Inauteriei agur, ikastetxeetako gazteek Herriko Plazan egindako dantzekin

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Inauteriak igarota, eskoriatzarrak primeran ibiltzen dakitela erakutsi dute beste behin ere. Antolatutako ekintzetan parte hartu eta giro ederra sortu dute. Urdelardero Egunak eman zien hasiera jai horiei; ikastetxeetako gazteak baserritar jantzita irten ziren kalera. Askotariko mozo-roak ikusteko aukera egon da Eskoriatzan.

Kintoek lan txukuna egin dute herria girotzen. Hala ere, eguean, otsailak 3, partaide batek ezbeharrak izan zuen etxafuego batekin Almenera eginiko bisitan. Ebakuntza egin eta domekarako etxean zen gaztea. Kintoek omenalditxoak egin zituen Herriko Plazan domekan eginiko dantza saioan.

Bestalde, zapatuko herri bazkaria aipatu behar. Jendetza elkartu zen pilotalekuan. Ondoren, Luis Ezeiza ikastetxeko jolas-tokian zezen txikiak eta pottokak izan ziren, eta jende ugari hartu zuen parte.

Azkenik, martitzenean eskolen txanda izan zen. Eguraldia lagun zutela, goizean Herriko Plazan elkartu ziren, eta, taldeka, asko entseatutako dantzak jendaurrean egin zituzten; arratsaldean, txokolata, Kukumarroak eta Telmah taldearekin dantzaldia izan ziren Herriko Plazan.

ARGAZKIAK: Z.V.M.



Zapatuan jai giroa nagusitu zen pilotalekuan, herri bazkarian.



Herriko Plazan ederto egin zuten dantzan ikastetxeetako lagunek.



Andaluziatik gurdian etorritako neska ote?



Araoak izan zituen emakumeak sokarekin.



Lan handia egin dute kintoek Inauterietan.



Piratek ez zuten txistorrarik lapurtu behar izan oraingoan.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskalgia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

ARETO FUTBOLA

Bihar, zapatua, Euskal Ligako areto futboleko norgehiagoka ikusgai egongo da herriko kiroldegian. Eskoriatza KE - Cafeteria Irtziri FCren (Bilbo) kontra neurtuko da bihar.

IZEN-EMATEA

Amuskak antolatutako ikastaroetan izena emateko azken aukera gaur, 18:00etatik 19:00etara.

KZGUNeko IKASTARoAK

Asteburu bat Euskal Herrian ikastaroa hilaren 18an, 18:00etatik 20:00etara.

AXTROKIRENAGENDA

2004KO KUOTA

Axtrokik bere bazkideei jakinarazi nahi die 2005ko bazkidetza kuota otsailaren kobratuko duela. Horren arrazoia, kultura elkarteak ordenagailuekin izandako hainbat arazo. Argibide gehiagorako: 943 71 54 34.

ITXIERAREN KONTRAKO ADIERAZPENAK NAGUSI BI EGUNEAN

Lepo bete zen Ibarraundi, Zubillagako hiltegiaren gaineko jardunaldietan

Z.V.M.

Herrian kaltetu ugari eragingo luke Zubillagako hiltegia ixteak, martitzen eta eguaztenean egindako jardunaldietan aipatu zuten. Ganaduzale, harakin eta kontsumitzaileak lirarteke kaltetuenak. Eskoriatzan 175 baserri daude, nahiz eta ez diren guztiak ganadutik bizi.

Martitzen eta eguaztenean jende asko gerturatu zen Ibarraundi jauregira, Zubillagako hiltegiari buruzko informazioa jasotzera. Asmoa zen itxieraren kontrako eta aldeko informazioa ematea.

Martitzenean, baina, Zubillagako hiltegia ixtearen aldeko adierazpenik ez zen entzun eraikin berrituan. Hala ere, gonbidatuta zeuden, besteak beste, Foru Aldundiko kide bat eta hiltegiaren gerentea bera. Jardunaldietan parte hartu zutenek euren iritzia berri eman zieten bertaratutakoiei. Juan Carlos Bengoa alkatea izan zen martitzeneko hizlarietako bat. Itxieraren kontrako iritzia duela aipatu zuen eta nahiz

Hiltegi publikoa beharrezkoa dela ondorioztatu zuten martitzenean jauregian

eta Eskoriatzari ez dagokion zuzenean zerbitzu horren kompetentzia, herritarrei ematen zaien beste zerbitzu bat dela gogorarazi zuen. Jon Leturia harakinak ere hartu zuen parte jardunaldian, eta kezkatuta azaldu zen, hiltegia itxiz gero okelaren sektorea harakintza handien esku geratuko delako: "Horrek produktuen kalitatean eragingo du batez ere", gaineratu zuen.

ENTZULEAK, KEZKATI

Baserritar, harakin, eta abarrek hainbat kezka azaldu zieten hizlariari. Hala ere, guztiak bat agertu ziren hiltegia kosta ahala kosta zabalik mantentzea gura dutela.



Itxieraren kontra daudela adierazi zuten parte-hartzaileak.

LABUR

Ibarraundin kokatuko duten museoarentzat, izen eta logotipo aukeraketa lehiaketa bidez

Eskoriatzako museoak eta Eskoriatzako Ondare eta Turismo Sailak lehiaketa bat antolatu dute. Ibarraundi jauregiko museoarako izena eta logotipoa asmatzean datza sariketa.

Logotipoa diseinatzeke Axtrokiko ontziak hartu beharko dituzte oinarri lehiaketako parte-hartzaileak. Hala ere, Museo Eskolako Nerea Aranak aditzera eman duenez, "oraingoaren desberdina izan beharko dute diseinatutako lanek".

Izenari dagokionez, berriz, gune berriaren adierazgarri izan beharko duela eman du aditze-

ra Nerea Aranak: "Izen berria ez da eraikinarentzat izango, Ibarraundi jauregia izaten jarraituko du eta", azaldu du. Sariketaren bidez Museo Eskolari aldatuko diote izena, beraz.

Martxoaren 8a izango da lanak aurkezteko azken eguna. Proposamenak kartazal batean sartu, izen-abizenak idatzi eta Ibarraundi jauregira eramateko dei egin dute lehiaketako antolatzaileak.

Lehiaketako saria 300 euro izango da, eta martxoaren 15ean emango dute aditzera Teleskoren bitartez.

Ehoziriak egin, eskulanetan trebatu eta larrua nola erabili ikasteko aukera Amuskaren eskutik

Eskoriatzako emakume taldeak, Amuskak, hainbat ikastaro antolatu ditu datorren astean hasi eta ekainera bitartean. Astelehene-tik eguenera emango dituzte eskolak. Gaur amaitzen da izena emateko epea; Amuskako bazkide diren lagunek 20 euro ordaindu beharko dute, eta gainerakoek, berriz, 26 euro.

18:00etatik 20:00etara emango dituzte eskolak. Astelehene-tan esaterako, ehaziri ikastaroa emango dute. Martitzenetan berriz, olio-pintura eta eskulan ikastaroak eskainiko dituzte. Eskulanak arratsaldetan izango dira; olio-pintu-

rako eskolak berriz, 09:30etik 11:30era emango dituzte.

Eguaztenean, bestalde, eskulanak izango dira protagonista kultura etxean, horretan arituko baitira eskola hartzera animatzen direnak.

Asteko azken eskolak eguenean emango dituzte. Larruarekin lan egiten irakatsiko dutela eman dute aditzera Amuskako arduradunek.

Amuskak Emakunde eta Eskoriatzako Udalaren laguntzarekin antolatu ditu ikastaroak, eta bakotzak 30 orduko iraupena izango dutela eman dute aditzera.


LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza



Gustora egoteko!

Intxaurtxueta 8
ESKORIATZA
943 71 40 63

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

SAION DE BELLETA
OSASUNA ETA EDERGINTZA
DORLETA

Otsailak 12tik 19ra
itxita!

Aranburuzabala 22. behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20

JOKOAK KALEAN EGITEKO GIRO POLITA ESKAINI ZUEN EGURALDI ONAK

'Altxorraren bila' arrakastatsua eta afariko giro ona nagusi Inauterien ospakizunean

Z.V.M.

Dotore jantzita irten ziren Leintz Gatzagako lagunak zapatuan kalera. Mozorroak jantzi, eta gazte eta helduek dibertitzeko aukera izan zuten. Eguraldia lagun izan zuten arratsaldean kalean jolasean aritu zirenek. Eta afarian ere ederto ibili ziren.

Jende ugari gerturatu zen zapatuan Leintz Gatzagara. Eguraldi onari esker *altxorraren bila* jokoa aritzeko giro polita zegoen. Eta gazte ugari hartu zuen parte bertan; hainbat talde egin zituzten. Gauean, ederto afaldu zuten guztiak elkartean. Amaitzean, gazteek nekatu arte jolas egin zuten eta nagusiek, berriz, dantza egiteko aukera izan zuten.


PARTE-HARTZAILEEN ESKER ONA

Asteburuan Gatzagan egon zen ZE BARRIko irakurle batek ohartxo bat emateko eskatu digu. Batetik, eskerrak eman gura dizkie herriko gurasoei, gazteentzako jolasak antolatzeagatik; bestetik, Udalari ere eskerrona eman gura dio afaria eta dantzaldia prestatzeagatik. Ederto ibili zela gaineratu du.



Punk txikia ere gerturatu zen zapatuan herrira, eta ederto ibili zen.

Z.V.M.



Pilotalekuan mapak jasotzeko postua jarri zuten.

Z.V.M.



Mapak irakurtzeko abilezia erakutsi zuten *altxorraren bila* aritu zirenek.

Z.V.M.



Nagusiek afaltzen amaitu bitartean...

AITOR LIZARRALDE



...elkarrekin jolas egiteko aprobeztatu zuten gazteek.

AITOR LIZARRALDE



Maulanda
merenderoa

Eguneko
menua

Maulanda Auzoa ESKORLATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



2005-2006 ikasturtea izena ematea: **otsailaren 14tik 28ra**

Ordutegia: 09:00etatik 11:00etara eta 16:30etik 18:00etara
BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77



TALDE EGOKITUAU

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokituetan

ORDUTEGI ZABALA

- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAU

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta

EGUTEGI ZABALA

- Egutegi eskolarraz gain, Gabonaetan, Pazko astean eta uztailaren 23ra arte zabalik.

LOGELA



**Txiki txikitatik
jolasten heziz**

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetscea

Azatza auzoa ARETXABALETAKO 943 79 16 68

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

IOSU
harategia
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 88 95

EzkuTU
TABERNA



Zatoz gure musikaz gozatzeraz

Mitarte 9 ARETXABALETAKO Tel.: 943 79 92 01

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETAKO
Tel.: 943 79 88 60

Mitartegorai
Baserri turismoa
eta taberna



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



gaztemenuak
preziosotak

eta buruztarako gazte menuak
egin zure aukera

Durana 26, ARETXABALETAKO. 943 79 20 67

ARLUTZ
TABERNA

Gustuko musika

Mitarte 16. ARETXABALETAKO Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETAKO
Tel.943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETAKO

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAKO

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
- paellak eramateko

